

AUTODEFENTSA FEMINISTA

SARRERA

Emakumeen aurkako indarkeriak, sistema patriarkalean funtzio garrantzitsua jokatzeko du. Indarkeri honek, emakumea menpeko egoeran mantentzen duten sexuen arteko botere harremanak betikitzen ditu. Botere harreman hauen existentziak emakume eta gizonen artean diferentziak ekarri ditu eta mendeetan zehar emakumeenganako indarkeria iraunarazi.

Emakumeok meneko eta esaneko egin nahi izan gaitu sistemak. Pasiboak, delikatuak, menekoak, sakrifikatuak eta babes behar dutenaren rolarakin identifikatu izan gara. Izan ere hala irakatsi digute. Emakumeoi gizonaren itzalean egon behar dugula errepikatu digute behin eta berriz eta badirudi gure kabuz ez dakigula gure burua defendatzen.

“Menpekoaren” diskurtso hau, emakumeok barneratzen joan gara eta horrek beldurra eta izua sentitu arazi dizkigu. Txikitatik irakatsi digute beldurra sentitzen, gauzak “bakarrik” ez ditugula egin behar errepikatu baitigute. Adibidez, bakarrik bizi bagara beldurra sentituko dugula ohartarazi digute, kalean zehar bakarrik baldin bagoaz normalena beldurra sentitzea dela sinestaraziz edota ezezagun bat hurbiltzen bada kontuz ibiltzeko esanez. Guzti honek, “bakarrik” ibiliz gero arriskuan gaudela jakinarazten digu.

Baina beldur hau hein handi batean ezarria da. Askotan ezezagun batek baina lehenago etxeko nahiz familiako ezagun batek erasotzea posibleagoa baita. Baina beldur soziala eraiki da emakumeon gainean eta beldur hau gizonen onurarako izan da. Honela, kontrolpean mantentzen gaituzte, pasiboak, inizatibarik gabek eta espazio publikoak gehiegi okupatzen ez dituztenak bihurtzen baikara.

Beldur honen helburua ez da inondik inora gu babestea, baizik eta izu sentimendua areagotzea eta gu geldirik mantentzea. Ez gaituzte gure gorputzen burujabe egin nahi eta ezta gure bizitzaren jabe ere.

Instituzioetatik, emakumeenganako indarkeriaren aurka lantzen ari diren kanpainen, biktima paperetik eta babes beharrean gauden gaixo batzuen ikuspegitik tratatzen dute gaia. Beraz, desadostasuna eta kezka azaldu nahi dugu gaiaren inguruan sortzen ari diren kanpaina eta neurri babesleekiko.

Instituzioetatik planteatzen den ikuspegi paternalista gaindituz, emakume aske, indartsu, autonomo eta bere defentsa gaitasunak erabiltzeko prest dagoen emakume ereduaren alde egin nahi dugu. Horregatik aldarrikatzen dugu autodefentsa feminista.

ZER DA AUTODEFENTSA FEMINISTA?

Jarraian sorturiko testu hau *Mujeres en Red* web orrialdean eta *Colectivo de mujeres autonomas* taldearen testuetatik ateratako ideiekin hornitua dago.

Emakumeen kontrako indarkeriaz ari garenean, egunero eremu ezberdinetan jasaten ditugun erasoez ari gara, sotilagoez, nabarmenagoez, arin edo larriagoez. Eta indarkeri kasu hauek aztertuz gero beti dugu biktima bat (erasoa jasotzen duena), erasotzaile bat eta nola ez salbatzaile bat (biktimari erasotik ateratzen laguntzen diona). Hiruko harreman hau hautsi eta erasoa jaso duenak defendatzeko duen gaitasunaz, energiaren eta indarraz hitz egiten hastea litzateke autodefentsaz aritzea.

Gure bizitzetan beldurra eta sumisioa barruraino sartuta ditugu askotan eta egoera honen kontzientzi hartzea eta eraso ezberdinak identifikatzen jakiteak gure burua defendatzen laguntzen digu. Interes patriarkalen arabera mugitzen den sistemaren aurrean, autoestimua psikikoa eta fisikoan izatea beharrezkoa da, emakumeek maila pertsonal eta kolektiboan segurtasuna landu beharra dugu.

Askotan autodefentsa feminista diogunean, defentsa pertsonalerako teknika multzoa bezala ulertu izan da. baina askoz haratago doa autodefentsa feministaren ulermena. Indarkeriaren erroetara jo eta berarekin amaitzeko beharrezko den jokabide, jarrera eta tresna multzoa litzateke. Autodefentsaren bidez aurrera egin dezakegu, gure autoestimua indartu egiten da eta jendartean ezarrita dauden generoaren araberrako rolen inguruko kontzientzia hartzea edota esnatzea suposatzen du.

Emakume askeak eta autonomoak izan nahi dugu, gure buruaren jabe. Gure buruengan dugun ziurtasuna handituz eta gure gaitasunetan sinetsiz. Norberaren etorkizunaren, gorputzaren edota bizitza beraren jabe garela sentitu nahi dugu. Gure burua maitatzea, errespetatzea eta jendeari behar denean limiteak jartzen jakiteak eramango gaitu autonomiaz defendatzera. Jarrera matxistak identifikatu eta hauei uko egiteko gai gara guztiok eta garapen honetan aritzea autodefentsa egitea da.

Gaitasun honek ordea lanketa eta prestaketa eskatzen du batetik baita emakumeen artean hitz egin eta elkarrekin harremanetan jartzea ere. Eraso sexisten erantzukizuna ez da gurea, sistema patriarkala, erasotzaileak eta salbatzaileak ere seinalatu behar ditugu. Kontua ez da eraso baten aurrean defendatzeko gai izan ez bagara gu gaizki sentitzea baizik eta hurrengo eraso batzuetarako prestatzen joatea eta guregan dagoen defendatzeko gaitasunean trebatzea. Ez dugu jarrera hau erruduntasun sentimenduaren sortzaile bihurtu behar, pixkanaka gure barnean erroturiko balio eta jarrera desegokiak alboratu eta askeago egingo gaituztenen jabe egingo gaituen prozesua bezala ulertu behar dugu.

Indarkeriaren aurrean prebenitu, babestu eta erantzuteko gai izan nahi dugu. Beldurra onartzeak, haserrea askatzen du eta ekintzetara (erantzunera) pasatzeko prestatzen gaitu. Horregatik diogu errebelde izatea babes mekanismo bat gehiago dela. Erasotzen gaituenari erantzuteko modu bat, beharrezko defentsa bat. Erasoak ordea ezberdinak dira eta erantzuteko moduak ere ezberdinak izan daitezke. Emakumeen adinaren nahiz kulturaren edota unean uneko zirkunstantzia ezberdinen aurrean gure erantzunak ezberdinak izango dira eta beraz gure defendatzeko gaitasuna trebatzeko orduan tresna ezberdinei eta forma ezberdinei erreparatu beharko diegu. Honela, oso aberasgarria izango da adin eta kultura ezberdinetako emakumeek dugun eraso sexisten inguruko hautematea konpartitzea eta elkartasun zubiak eraikitzen joatea.

Autodefentsa feministak ez du zentzurik emakumeen arteko babesik gabe. Jendarte honetan emakume gisa dugun kontzientzi indibidual eta kolektibotik abiatuta, indibidualismoa gaintu eta harremantzeko modu gisa, emakumeen arteko elkartasuna eraiki behar dugu. Erresistentzi eraginkorra ziurtatuko diguten formulak behar ditugu, norberaren teknikak eta proposamenak konpartituz.

Indarkeri sexista jasaten duen edozein emakume erasotzen dutenean, gutako edonor erasoko balute bezala da. Eraso bakoitzaren egoerarekin konpromisoa eta elkartasuna agertuz autodefentsa feminista bultzatzen dugu. Ezin dugu eraso sexistak kasu isolatu gisa tratatzen jarraitu, eraso bakoitzak emakumeon egoera orokorrarengan eragiten baitu. Askotan emakumeek erasoen

aurrean bakarrik sentitzen gara emakumeen arteko elkartasun faltagatik. Kontua ez da gure burua soilik defendatzea, baizik eta horrez gain gure bizipenak, beldurrak nahiz aurre egiteko estrategiak taldean konpartitzea. Emakumeen arteko antolakuntzarik gabe ezinezkoa da autodefentsa.

Erasotzen bagaituzte, defendatu beharra dugu. Ezin dugu gure segurtasuna eta bizitza beste batzuegan delegatu. Arazo sozial honi aurre egiteko beharrezkoa da norberaren defendatzeko gaitasuna trebatzearekin batera, emakumeok antolatzea, gure artean babestea, taldean eztabaidatzea eta espazio komunak eraikitzea.

Ezin dugu zain egon, ea gu salbatzera noiz etorriko diren. Defendatzeko dugun gaitasunaren erabilera egin nahi dugu. Nahiz eta batzuetan eta instituzioetan gehiegi sinesten ez dugula diogun arren, bertatik etorriko diren neurri eta soluzioen zain gaude. Baina ezin dugu espero indarkeria patriarkalaren arazoa instituzioek (epaileek, poliziak, politikoek...) konponduko dutela. Instituzioak beraiek baitira askotan beraien onurarako indarkeri honen erabilpena egiten dutenak, legitimizatzen dutenak. Autoritate moral eta legala biktima egiten du errudun eta emakumeon askatasuna bera zapaltzen du eskubide urraketa ezberdinak onartuz (hala nola abortu eskubidea, legeek sortzen duten babes falta...).

Emakume, ni, zu eta bera. Adin, kolore nahiz kultura ezberdinetakoak izan, guztiok pairatzen ditugu indarkeriaren ondorioak. Gu gara indarkeriarekin amaitu nahi dugun lehenak eta guregan dago honi aurre egiteko nahiko indar eta gaitasun. Batuz, kontatuz, pentsatuz eta estrategia ongi makinatuz erantzun dezagun! Kanpora ditzagun erasotzaileak eta sistema patriarkalaren lagun diren instituzioei aurpegia gorritu diezaiegun. Egurra!

**2008ko Azaroan
Euskal Herriko Bilgune Feminista**